

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Albistez eta balorazioz beteriko astea

Gipuzkoako Foru Aldundiak C2ari aurkeztutako alegazioei erantzuna eman die, eta Foru Agindu berria argitaratu du 2/4

XV. ANDORAINO ROCK JAIALDIA
GOAN EKAINAK 10 JUNIO GRATIS
NAFARROA PLAZA — ANDOAIN

HASIERA 18:00

BLACK LIPS
THE SCHIZOPHONICS
GIANT ROBOTS **THE COURETTES**
CHOCOLAT BILLY NIZE

AL MEDIODIA • APERITIF • EGUERDIAN **ARIMA • SIGLAS • KRIN**

KULTURA
Bloody Mary
5 SALKIN
bastero
ANDORAINO UDALA



A15 eta N1 errepedeen arteko lotunea albiste ugariaren iturri izan da aste honetan, alegazioen erantzunak eta Foru Agindu berria ezagutarazi direlako. IREKIA

Muinari eusten dio Foru Aldundiak

“Entzute aktiboa eskatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari”

Bideo bidezko agerraldia izan zen, adierazpen modura, galdera eta erantzunetarako aukerarik gabe. Pantailaren aurrean, Maider Lainez alkatea Jose Luis Verdasco zinegotzi sozialistarekin batera agertu zen, eta, euskaraz zein erdaraz, une horretan, kazetarien esku ez zegoen Foru Aginduari buruzko balorazioa egin zuen: “Trazaketa proiektuaren tramitazioan atzera egiteak erakusten du Bide Azpiegituretako departamentuak aurkeztutako C2 proiektua ez dela Andoainek behar zuena, eta Udalak arrazoi duela azpimarratzen du. Batez ere, Udalak alegazio serio, koherente, bideragarri, beharrezkoak aurkeztu zituela erakusten du. Horregatik, atzera egin behar izan du prozeduran. Hori ez da batere ohikoa”.

Adierazpen horrek eta ondoren zabalduko prentsa-oharrak irismen handiko egunkari eta irrati nagusietan zabalkundea izan zuen, eta nahasmena sortu zen. C2a

bertan behera geratzen zela iradokitzen delako. Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile Eider Mendozak argibideak eman zituen, ordu gutxira: “Egitasmoak aurrera darrai, beharrezkoa delako”. Ostegun goizean, Bide Azpiegituretako departamentuak prentsa-oharra zabaldu zuen Andoaingo alkatearen adierazpenei erantzunez.

“Herriaren eta herritarren interesak defendatzen jarraituko dut”

“Andoainen eta andoaindarren interesak defendatzen jarraituko dugu eta ezetz esango diegu gure herriari konponbide egokia ematen ez dieten proiektuei”. Maider Lainez alkateak entzute aktiboa eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari: “Entzute ariketa aktiboa eskatzen diogu Foru Aldundiari. Eraikuntza proiektua eta ingurumen azterketa idatzi behar direnez,



Verdasco eta Lainez. UDALAYOUTUBE

epeak ikusita, Aldundiko agintari berriari egokituko zaio hori bideratzea. Udalarekin entzuketara aktiboa izatea eskatuko diogu. Gobernu zentralaren 476.000 euroak laster iritsiko dira eta, alde horretatik, proiektu alternatiboa lantzeko prozedura martxan jarriko du Udalak. Herritarren beharrei erantzuneko diena izango da”.

Halaber, datozen egunetan Aldundiarekin, Plataformarekin,

Sorabilla auzo elkartearekin eta enprekin bilduko dela iragarri zuen, eta baita, modu berean, bilera eskatzen dioten pertsoekin ere: “Denon artean bilduko gara, eta, aurrerago, balorazio orokorra egingo dugu. Alkate modura jarraituko dut Andoaingo herriaren eta herritarren interesak defendatzen, Andoainek merezi duen proiektua izan arte”.

Eraikuntza proiektua idazten ari da Gipuzkoako Foru Aldundia

"Trazatu proiektua gaindituta dago, jada, eta eraikuntza proiektua idazten hasiak gaude orain bi hilabetetik"

Erredakzioa ANDOAN

Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretako diputatuak argitu nahi izan du lotune berriaren proiektuak aurrera jarraitzen duela. Gogorarazi du, 2022an, trazadura proiektua Andoingo Udaletxean aurkeztu zen egunean, zarataren aurkako plataformari azaldu zitzaizela Mimen-di parean itxitura egin eta pantailak jartzeko asmoa. "Sorabillako auzo elkartearekin ere egon ginen eta entzundakoak jaso ditugu, neurri handi batean, alegazioen bitartez", erantsi du Oiarbidek.



Aintzane Oiarbide. ALDUNDIA

Hilabete hauetan, proposamen hauen bideragarritasun teknikoak aztertzen aritu da departamendua. "Beraz, trazatu proiektua gaindituta dago, jada, eta eraikuntza proiektua idazten hasiak gaude orain bi hilabetetik", azaldu du diputatuak.

Andoingo alkateari kritika

Obra-publikoak gauzatzeko egin beharreko urrats guztiak beteta, "inola ere ez da atzera egin prozeduretan, Maider Lainez, Andoingo alkateak publikoki kontrakoa esan badu ere". Oiarbidek "harriduraz eta kezka" entzun ditu Andoingo alkatearen hitzak, eta uste du astelehenan udaletxean adierazitakoek, "herritarren artean nahasmena eragin dezaketela eta espektatiba okerrak piztu". Azaldu duenez, Aldundiak herritarrekin duen konpromisoa "arduraz eta gardentasunez" betetzen jarraitzen du, eta, une honetan, alegazioetan onartutako proposamenei ahalik eta egokitzapenik onena aurkitzeko konponbide teknikoak bilatzeko garaia hasten da. "Horretarako, Udalarekin eta eragileekin elkarlanean jarraituko dugu, orain arte egin dugun bezala, elkarren artean irtenbide jasagarrienak eta egokienak aurkitzeko".

"Lanketa teknikoaren garaia da"

Prozesu administratiboak aurrera eginez, une honetan, lanketa teknikoaren garaia dela azaldu du Oiarbide diputatuak.

Xehetasun batzuk aurreratu ditu, prentsa-ohar bidez: "Mimendi auzoan, N-Ia itxitura batekin estaltzeko planteamenduan sakondu da eta, errepide gaineko pasabidean, proposamen arkitektoniko berria egingo da, esate baterako. Halaber, Sorabilla auzoan ere oinezkoentzako pasabide bat gehitu da eta trazatu proiektuan zegoen biribilgunea erabat baztertu da, bestelako ekarpenen artean. Trafikoaren antolamenduan ere moldaketak jaso dira eta Gurutze Gorritik Ama Kandida auzorako irteera bera birmoldatu da, adibidez, zirkulazioa erosoago eta seguruagoa izan dadin".

Datozen egunetan, nahi duten eragileekin eta erakundeekin batzarrak egingo dituzte departamenduko arduradunek, eta foru diputatuak berak. Ostegun honetan, Udalarekin biltzekoa da, alegazioen azalpenak emateko eta proiektuarekin aurrera jarraitzen dela adierazteko, "Udalak ez baitu ulertu Aldundiak sinatutako Foru Agindua".

Diputatuaren ustez N-Iak eragindako zaratak ekiditeko eta murrizteko neurriak ahalik eta azkarren errealitate izateko, proiektu hau da egokiena eta "ez behin eta berriro prozedura guztiak atzeratu nahian ibili direnena. Saihesbiderik ez da egingo, egungo ingurumen legeen arabera sarraski bat izango litzatekeelako eta argi daukagulako hau dela Andoain nabarmen hobetuko duen proiektua".



Herritar taldea hurbildu zen prentsa-agerraldira. AIURRI

"Akats larria da egungo trazatua gaindimentsionatzea"

C2ak kaltetutako plataformak alegazioen erantzunen eta Foru Aginduaren balorazioa egin du

Erredakzioa ANDOAN

C2ak kaltetutako plataformarentzat Foru Aginduak jaso duena "N1 errepidearen egungo trazatuaren gain dimentsionatua da, proiektuan ustezko hobekuntza batzuk txertatuz. Gure ustez, erabaki hori beste akats larri bat da; izan ere, egungo trazatuaren zegoen gehiegizko dimentsionamenduak atzera bueltarik ez duen hesi bat iraurarazten du, eta, gainera, etorkizuneko garapen urbanistikoak, komertzialak, industrialak eta sozialak eragozten ditu. Beraz, abiapuntu hori faltsua da".

Andoainek beste zerbait hobea merezi duela diote: "Andoain zain dago, 90eko hamarkadatik aurrera, andoaindar guztien bizi-kalitatea eta eguneroko bilakaera bultzatuko duten herrigune gisa garatzea ahalbidetuko duen proiektu bati ekiteko. Hamarkada horretan, jada, jasota dago N1 errepidearen egungo trazadura kanpora ateratzeko beharra. Andoain herriak tratatu duina merezi du, 30 urtez zain egon ondoren, N1 errepidearen egungo trazadurak sortzen dituen arazo konponezinak konpontzeko".

Bat eginda jarraituko dute

Astelehenan elkartu ziren plataformako kideak eta bertan hartutako erabakien berri eman zuten agerraldian. Besteak beste, plataformak bat eginda jarraituko duela adierazi zuten, "N1 eta A15 errepideen arteko edozein konexio-proiektueta-

rako azken izapidea ebatzi arte".

Plataformak hainbat irizpide izango dituen proiektu bat bultzatuko dutela adierazi zuten: "Ingurumenerako iraunkorra, pertsonen interesak errespetatzen dituen eta milaka andoaindarrek sinatutako dekalogoan jasotako helburu betegarriekin bateragarria dena".

Aldundiaren eta Udalaren aurkako errekurtsioak

Aita Larramendi ikastolan jartzekoak diren pantaila akustikoak C2aren arabera jarriko dituztela eta, plataformak ebazpen hori balio gabetza eskatuko du. Eta, horren ordez, panelak N1 errepidearen egungo trazatuaren gainean jartzea eskatuko dute.

Ildo horretan, Andoingo Udalak panelak jartzeko egindako lurren lagapenaren aurkako errekurtsioa aurkeztuko du.

Hitzordu nagusia dute martxoaren 26an

C2ari lotutako albisteen astea izan da, eta plataformak lehen-dik iragarritu zuen herri agerraldia igande honetarako. Deialdiari eusten diote, eguerdiko 12:00tan Goikoplazan izango dena. Euriarekin, Aita Larramendi ikastolako frontoian egingo lukete. "Herritarrei dei egin nahi diegu ekitaldira bertaratzeko. Jasotako, egiaztatutako eta baliozko atxikimenduko kopurua jakinaraziko dugu, baita etorkizunerako proposamen berritzaile bat iragarri ere".



Artxiboko irudia. AIURRI

Sorabillan auzo batzarra deitu dute hilaren 29rako

Sorabilla auzo elkarteak deituta, Erretoretxean egingo dute 19:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Sorabilla auzo elkarteak deituta, Sorabillako Erretoretxean auzoko batzarra egingo dute. Eta, hizpide ezberdinen artean, C2a eta auzuneari buruzko aztergaia izango dituzte. Gai-zerrendan honako hau ageri da: "N-1 eta A-15 errepideen arazoaren egoeraren berri ematea, baita Sorabilla auzoari mutur batetik bestera eragiten dioten ondorio guztienak ere".

Aztergai gehiago izango dituzte hizpide, besteak beste, "elkarrearen zuzendaritza-batzordea aldatzea-indartzea". Zuzendaritzak auzokideei bertaratzeko dei berezia egin die.

EH Bilduren agerraldia, balorazioa egiteko

"Gipuzkoako Foru Aldundiak C2 proiektuari jarritako alegazioei emandako erantzunaren balorazioa" egitekoa da Andoingo EH Bildu, martxoaren 23an. 18:00tan deituta daude hedabideak, EH Bilduren bilgunean izango dena. Iragarri dutenez, "Andoni Alvarerek hartuko du hitza, udal talde eta Andoingo Mahai Politikoko kideez lagunduta".

Foru Agindua, Aldundiaren erreferentziazko gida berria

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak 2023ko martxoaren 16an sinatu zuen foru agindua. Horixe da etorkizunerako jarraibidea, A-15 eta N-1 errepideen arteko lotura hobetzeko trazadura proiektuari dagozkionak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ez gaude, oro har, administrazioaren prozedurak, erredakzioak eta hizkerak irakurtzera ohituta. Eta, egiten dugunean, nahasmena izaten da. Antzekoa gertatu da Andoainen, egun hautan. Horren aurrean, saiaturako gara ahalik eta idazkera argiena erabiltzen.

Funtsean, Bide Azpiegituretako Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuak alegazioei erantzuna ematen dien txosten eguneratua hartu, eta A-15 eta N-1 errepideen arteko lotura hobetzeko trazadura proiektua idatziko du. Argi adieraziz, "idatzi beharreko eraikuntza-proiektuan Bizikidetzaren II (C2) izeneko alternatibari dagokion trazadurari eutsi" behar diola.

C2aren muinari eutsiko diote, eta horrekin batera, hainbat aldaketa kontuan hartzea eskatzen du Foru Agindua:

- Ingurumen-inpaktuaren azterketa bat idaztea
- Lanen ondorioz sor daitezkeen hondakinen soberakinen kokalekuak berraztertzea.
- Mimendiren aurrealdeko errepide-zatia ahalik eta gehien estaliko duen estalduna diseinatzea.
- Mimendi eta SAPA artean oinezkoentzako eta txirrindu-



Aldundiaren Foru Agindua. ALDUNDIA

larienzako gaineko pasabide bat diseinatzea, eta SAPA ondoan pasabidearekin lotuko duen igogailu bat jartzea aztertzea.

- Gurutze Gorria eta Mimendi artean, Ama Kandidaraino, bi noranzko izango dituen bidea egitea.
- Hiru errei proiektatzea Sorabilla eta Bazkardo artean.
- Presagaina, Elizaldeandi eta Kordoba baserriak ez eraisteko azterlanak bideratzea.
- Sorabilla parean aurrikusitako buklea baztertu eta N1era sartzeko eta A15era igotzeko beste adar batzuk eraikitzea.

- Sapa-Calonge eta udalerrira lotzeko bi noranzko errepidea eta espaloia izango duen bidea diseinatzea.
- Sorabillan, N1 gainean, oinezko pasabidea eraikitzea.
- Txistokiko zubiaren ertzean pantaila akustikoak jartzea
- Azterketa akustiko berri bat egitea eta pantaila akustikoak instalatzea hala eskatzen edo gomendatzen denean.

Foru Agindua behin betikoa da Beraz, 2023ko martxoaren 14an egindako txosten-proposamen eguneratuak "hitzez hitz dioenari jarraikiz", egitasmo handi honekin aurrera egingo du Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuak. Hori da Foru Agindua jasotzen duena.

Behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Administrazioari aurre egiteko aukera, aurrerantzean, auzi errekurtsioa aurkeztea izango da.

ERAIKUNTZA-PROIEKTUAN C2-ARI DAGOKION TRAZADURARI EUTSIKO DIO FORU ALDUNDIAK

Alegazioen erantzunak aurreko ostiralean jakinarazi zituzten

Gipuzkoako Foru Aldundiak atzera bota ditu lotunea udalerritik urruntzeko alegazio guztiak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

C2 egitasmoari aurkeztutako alegazioen erantzuna ostiralean iristen hasi zitzaion Andoaingo herritarrei eta eragileei.

Alegatzaileen artean daude udal erakundeak, elkarteak, alderdi politikoak eta norbana-koak. Besteak beste, Adunako eta Andoaingo Udalak, Aita Larramendi ikastola, ENBA sindikatua, Sorabilla Errotagain auzo elkarteak, EH Bildu, Elkarrekin Podemos, PSE-EE edota talde popularra, SAPA, Gure Lau Bide, Talleres Aranburu eta beste zenbait enpresa. 55 alegazio izan dira, eta, erantzuna ematerako garaian, antzekotasuna dutenak multzoka jarri eta erantzuna eman diete.

C2 egitasmoak aurkakotasun handia sortu du Andoainen. Egitasmoa atzera bota edo birpentsatzea eskatu dute askok, alegazioen bidez. Ildo horretan, ibilbidea bere osotasunean zailentzen jartzen duten alegazioak aurkeztu dituzte Andoaingo Udalak, SAPAK, Andoaingo PSE-EEk, EH Bilduk, Podemos Ahal Duguk, Alderdi popularrak, Aita Larramendi ikastolak eta C2aren aurkako plataformak. Honako hauxe erantzunaren muina, alegazio-sortari: "Proiektuaren lehendabiziko etapetan, alternatibaren gaineko xehetasuneko azterketa bat egin zen eta, hor, ikuspuntu ugariatik zenbait irtenbide aztertu ondoren, horien artean, 2011. urtean, proiektuaren antzeko bat, irtenbide onena Bizikidetzaren II (C2) izeneko zela ondorioztatu zen, hain zuzen, jendaurreko informaziora eramandako dokumentuan garatzen dena (...). Beraz, erabaki hori aldatzeko behar adina argudiorik gabe, alegazioa ezeste proposatzen da".

Mimendi

Hainbat alegaziotan, estaldura jartzea proposatzen da, eta, Aldundiak igorritako erantzunean, "alegazioak onartu eta estaldura bat gaineratzea proposatzen da". Noiz, nola eta zein aurrekonturekin egingo den ikusteke dago.



Alegazioen txostena. ALDUNDIA

Obra handi samarra delako eta hori egiteko denbora luze N1 errepidearen martxa eten egin beharko delako.

Alegazioen artean, A15eko lotunea Inquitex aldean egitea proposatzen zuen Auzo elkarteak. Eta N1 errepidera sartzeko beste sarbide bat egitea proposatzen zuten, Iberdrolaren instalakuntzetik eta Villabonako lur eremutik gertu. Bada, Aldundiak honakoa dio "N1 errepiderako sarbidea Villabonarentz eramateko edozein alternatibak kostu ekonomiko handia izango duela". Sorabillan egun dagoen lotura mantentzearen aldeko erantzuna eman dute eta "haren aldaketa idazteke dagoen eta aurreragoko faseetan egikartzeko aparteko beste proiektu batekin jorratzea proposatzen da".

Auzo elkarteak, besteak beste, N1 errepidea auzunetik urrundu nahi du eta errei-kopurua ez areagotzea eskatu du. Hauxe, Aldundiaren erantzuna: "Ezinbestekoa da errei kopurua areagotzea. N-1 errepidearen trazadura mugitzea ezinezkoa da, inguruan dauden baldintzatzaile ugariak direla medio. Alegazioa ezeste proposatzen da".

HAINBAT ALEGAZIO ONARTU DITUZTE, BAINA, MUINEAN, EGITASMOAK BERE HORRETAN DIRAU



Kanal berezia Aiarri.eus gunean:
A15 eta N1 arteko lotunea

Webgunean kronikak, analisisa, agerraldiak, bideoak...

UNEAN UNEKO INFORMAZIOA

w w w . a i u r r i . e u s

Hamar eguneko grebari eusten diote

Soldatak IPC-KPIaren arabera egokitzeko eskatuz, Andoaingo Ama Kandida etorbidean dagoen EKT enpresan protesta-ekitaldia egin zuten martxoaren 16an. Enpresaren aldetik erantzunik jaso ez dutenez, langileek greba egitea erabaki dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

CCOO, ELA eta LAB sindikatuek mobilizazio berria egin zuten, aurreko astean Ama Kandida etorbideko lantegian. Bereziki, lan-hitzarmena eguneratzea eskatzen ari dira hilabete hauetan. KPIaren arabera igoera lortzea bidezkoa dela aldarrikatu dute, eta horretarako mobilizazio ezberdinak egin dituzte.

Aurreko hitzorduetan bezala, martxoaren 16an ere dozenaka langile atera zen enpresaren kanpoaldera. Sirena hotsak, oihiak... zaratatsua izan zen ordubeteko protesta-ekitaldia. Andoaingo lantegiko langileek, gainera, beste lantegi batzuetako ordezkarien babesa jaso zuten. Asturias, Kantabria eta Burgos aldetik elkartasunez hurbildu ziren Andoaingo lantegiaren kanpoaldera.

2022an ez zaie KPIaren arabera eguneraketatik iritsi, eta 2023an bide beretik doaz. Enpresako giza baliabideen alorrak



Protesta-ekitaldia aurreko ostegunean. AIURRI

entzungor jarraitzen duenez, mobilizazioei ekin diete. Gehiago egitea dute buruan, hurrengo asteetan. Ostegunean bertan, langileen asanbladan eta gehien-egun handi batez, grebara joatea erabaki zuten.

Grebak hamar eguneko iraupena izango du, martxoaren 27tik apirilaren 5era. Astebete da deialdia iragarri zutenetik, eta egun hauetan enpresaren aldetik ez da mugimendurik izan.



AIURRI

1954an jaiotakoen bazkaria

1954an jaiotako andoaindarrek kintoen bazkaria antolatu dute apirilaren 1erako. Albizturko Santa Marina auzoan kokatzen den Segore Etxe Berri jatetxean egingo dute bazkaria. Izena emateko azken egunetan gaude; 20 euro ordaindu beharko dira

izena ematerako orduan. Elizondo, Urkiola eta Gaztelutxo tabernetan eman liteke izena, edota, honako telefono-zenbakietara deituta: 626828461 (Pili), 690288644 (Andoni), edo 609969120 (Felix).

IRITZIA

PENTSIODUNAK GIPUZKOA

Gipuzkoako pentsiodunen adierazpena

Bilbon buruturiko barau-itxialdiak oihartzuna izan du euskal gizartearen sektore zabal batean, baita Euskal Herriko eta Estatuko komunikabideetan ere. Ekimenak bi helburu izan ditu, batetik, Espainiako Gobernuari 1080 euroko Gutxieneko Pentsioa exijitzea, eta, bestetik, hori lortu artean, pentsioak kopuru horretara osa ditzatela eskatzea Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Gobernuari eta Legebiltzarrei, horretarako baliabideak eta eskumenak badituztelako.

Bestalde, ekimenari esker, Estatuko gainerako Erkidego eta Herrietako hainbat sektore pentsiodun eta herrikoitan arreta eta interes handiz jarraitu dute ekimenaren erronka eta lehenetsunezko helburua: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, hamalau ordainsaritan, eta berehala aitortu eta aplikatzea.

Larunbatean, Bilbon egin zen manifestazioak, kanpainaren amaiera gisa, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako milaka pentsiodun bildu zituen, eta langileen eta beste sektore herriko batzuen babesa jaso zuten. Iruñeko osasun publikoaren aldeko manifestazioan parte hartzeari lehenetsuna ematea erabaki zuten Nafarroako pentsiodunek. Bilboko manifestazioa bertaratze garrantzitsuak berretsi egin zuten barau-itxialdiaren eta haren inguruan bultzatutako kanpainaren arrakasta.

Pentsioen erreforma berriaren balorazioa

Ostegunean, Ministroen Kontseiluak oniritzia eman zion bezperan CCOO eta UGT sindikatuekin pentsioen erreformari buruz lortutako akordioari. Egun hauetan, hainbat negoziazio egiten ari dira, eta, ondoren, Kongresura igaroko da eztabaidatu eta onartzeko.

Enpresaburuek Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak % 0,5 igoko dira, eta langileek egindako kotizazioak % 0,1. Igoera hori positiboa da Gizarte Segurantzaren diru-sarrerak hobetzeko. Halaber, gehienezko kotizazioen muga kentzea. Baina azken hori oso mugatua eta oso luzea da denboran, eta, beraz, diru-sarreretan izango dituen benetako ondorioek eragin gutxi izango dute epe laburrean.

Nabarmendu da kotizaziopeko gutxieneko pentsioak nabarmen hobetuko direla, Europako Gutun Sozialaren gomendioetatik gertu. Egia da emakumeen kotizazio-hutsuneetako genero-arrakala eta estaldurak arintzeko neurri positibo batzuk jasotzen direla, baita kotizaziopekoak ez diren pentsioak eta alarguntza-pentsioak hobetuko direla iragarri izana ere.

Baina, dakigunez, 65 urte edo gehiago dituen eta ezkontidea bere kargura duen pentsiodunarentzako gutxieneko kotizaziopeko pentsioa 2023an 966,21 eurokoa izango da; baina adin horretan, pertsona bakarreko unitate ekonomikoa osatzen duenak, hau da, bakarrik bizi denak, 783,07 euroko pentsioa baino ez du izango. 2027an, lau urte barru, ezkontidea ardurapean duen 65 urte edo gehiagoko pentsiodunak 1.179,36 euroko pentsioa izango duela aurreikusten da. Eta bakarrik bizi bada, pentsioa 920,07 eurokoa izango da. Akordio horrek ez ditu indargabetzen 2011. urteaz geroztik jasaten ari garen pentsioen erreforma erregresiboak (15 urtetik 25era pasatzea pentsioak kalkulatzeko, 65 urtetik 67ra bitarteko erretiro-adina handitzea...), baizik eta haien mantentzea betikotzen du.

Murritzeta gehiago egon ez izana eta hobekuntza batzuk sartu izana, zalantzarik gabe, pentsiodunen mugimenduen mobilizazioen eta presioaren ondorio dira. Baina ezin dugu gure kritika irmoa egin gabe utzi adosten ari denagatik, ez baitie erantzuten EHPMk eta Estatuko gainerako erkidego eta herrietako pentsiodunen plataformek defendatzen ditugun bidezko eta zentzuzko eskaerei.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



PROTAGONISTA

"Herri bizi bat nahi badugu, ez da posible baldintza hauetan lan egitea"

AMAIA LAZKANO AMAIA ESTETIKA, ANDOINGO KALE NAGUSIA

Martxoaren 31n atek itxiko ditu, 28 urtez langintza berean aritu eta gero. Kynai, El rincón de Carlota eta Amaia eremu berean daude. Hirurak itxiko dituzte

Fer Irazu / J.A.Ubeda ANDOAIN

Urte asko egon zara lanean Kale Nagusian, eta laster atek itxiko dituzu. Zer dela eta?

Begira, 28 urtez lanean egon naiz, baina egungo autonomo txikien egoera ez da jasagarria. Nire kasuan, behintzat. Erabaki hau hartu baino lehen, buerari bueltaka ibili naiz 2022ko azarotik. Eta, azkenean, ixtea erabaki dut. Prezioak bikoiztu eta hirukoiztu egin beharko nituzke lanean jarraitzeko, eta ez nago prest.

Ez zara kale berean, egunotan, negozioa itxi duen komertzio bakarra. Zein iritzi sortarazten dizu horrek zuri?

Indarrean dagoen sistema honetan, merkatalgune txikia ez da inoren interesekoa. Autonomo guztiei multzo beren sartu gaituzte, eta ez da jasagarria. Eta, horregatik, oraindik ere itxiera gehiago izango da. Pixkanaka-pixkanaka, itxiz joango dira. Herria merkataritzarik gabe geratuko da. Horrela izango da, azkenean.

Zer nolako harremana izan duzu Andoaingo bezeroekin?

Oso ona. Oso kontentu nago, oso harreman polita izan da. Eskertuta nago, oso. 28 urtez iraun



Amaia Lazkano, Andoaingo Kale Nagusiko Amaia estetika guneko arduraduna. AIURRI

duen esperientzia hau oso polita izan da.

Eta kale bereko merkatalguneetako kideekin?

Ona ere. Etorri eta joan diren merkataritza askorekin izan dut harremana, gertutasuna eskaintzen zuten. Gertutasuna, aurrez

aurreko harremana eskaini diote bezeroari. Harreman ona izan dugu, eta bat eginda egon gara. Itxieren aurrean ere gertu egon gara.

Tokiko merkataritza bolada txarrean da, oro har, Andoainen. Zein da zure iritzia?

Gauzak asko aldatu beharko direla egoera hau aldarazteko. Jendeak ez du herrian gastatzen, eta gainera autonomo txikiak ez gaude une onean. Krisi asko pasa ditugu aurreko urteetan.

"EGUNGO AUTONOMO TXIKIEN EGOERA EZ DA JASAGARRIA. AZKENEAN, IXTEA ERABAKI DUT"

Eta krisi bakoitzeko itxierak izango dira.

Etokizunean zer egingo duzu, lanbide berean jarraituko duzu?

Ez dakit zer egin. Hunkituta nago. Lehenik negozioa itxi eta gero gerokoak. Uste dut autonomo izaten jarraitzetik ihes egingo dudala. Nahiko argi dut hori. Ihes, diodan bezala. Ez dakit lanbide berean edo bestean ibiliko naizen, baina soldatapean jarraitu nahiko nuke. Autonomoak etxera eramaten dituzte arazoak.

Zer esango zenioke bezeroari, lerro hauen bitartez?

Andoaingo Kale Nagusian bizi izandakoa oso esperientzia polita izan dela, nirekin eramango dudana. Baina adierazi nahi dut ere autonomo txikien egoera ez dela jasagarria. Autonomo txiki bat izateko geroz eta zerga eta traba gehiago ditugu. Horrela, gaizki goaz. Herri bizi bat nahi badugu, ez da posible baldintza hauetan lan egitea. Dendeno eskerririk asko, bihotzez, nigan konfiantza izateagatik. Betirako eskertuta nago.



andoaINDARRA
euskaraz

Ondoriorik gabeko gertaera deigarria, Ondarreta kalean

Astelehen goizean komun publikoaren goialdean zegoen koltxoia itzali zuten suhiltzaileek

Erredakzioa ANDOAIN

Suhiltzaileak Ondarreta kalera hurbildu ziren, astelehen goizean. Koltxoia su hartu zuela eta, hura itzaltzera hurbildu ziren. Albistearen zabaldu zen, suak hartutako koltxoia Onda-

rrreta kaleko komun publikoaren goialdean zegoelako. Eta hori nola da posible? Horixe zen Aiurriko argazki-albistearen irakurri zuten askoren galdera.

Bada, honako hauexek izan ziren astelehen goizeko gertaera: kol-

txoi horrek ondoko etxebizitza batean su hartu zuen. Su-itzal-gailu batekin itzali zuten, hasiera batean. Minutu gutxira koltxoian sua berpiztu zen, eta azkeneko ondoko etxeko balkoi batetik bota zuten. Ezustean, ez zen lurrera erori baizik eta WCaren eraikinaren gainean geratu zen. Suhiltzaileak hurbildu ziren itzaltzera, eta, lanak amaituta, zaborte-gira bidaltzeko utzi zuten espaloian, ondoan dauden edukiontzien artean. Gertaera bitxia, zorionez, ondoriorik gabekoa.



Suhiltzaileak astelehen goizean, Ondarreta kalean. AIURRI

GORA ETA BEHERA

Olagain pareko zuloak



Martxoaren 3ko astekarian, zebra-bidean zeuden zuloen berri eman zuen Aiurrik. Bada, dagoeneko zuloak estali dituzte. Albiste ona, bertatik haur eta adineko ugari igarotzen baita.



AIURRI

Kaletxikiko zuloa



Iaztik, zulo handi samarra zegoen espaloian, eta bertatik igarotzea ezinezkoa zen. Hesituta zegoen geroztik, eta denbora igaro bada ere, konponbidea ematen hasi dira aste honetan.



AIURRI

Arantzibia plaza



Aurreko astearen hasierako haizete-uriteen ondorioz, Arantzibia plazako iskin bateko adreilu ugari lurrera erori ziren. Hortxe daude, geroztik, inork jaso gabe.



AIURRI



"Gurutze", seigarren asteko zozketaren irabazlea. AIURRI

Egunean Behin lehiaketa azken txanpan sartu da

"Aiurri" taldean, asteko partida guztiak jaso dituztenen artean Arruti gozotegiko saria zozkatzen da

Erredakzioa ANDOAIN

11. denboraldiko seigarren asteko sari gozoaren irabazlea "Gurutze" izan zen, eta zazpigarren asteari dagokiona "Ainari-

ka". Biek ere Arruti gozotegiko sari gozoa jaso dute, astean zehar. Lehiaketa azken txanpan sartu da, amaierarako bi aste besterik ez baitira geratzen.



"Ainarika", zazpigarren asteko zozketaren irabazlea. AIURRI



Ostiraleko kontzertuaren ostean, Bandak beste hiru hitzordu dauzka: Santakruzak, Asteasu eta Martutene (kartzela). AIURRI



Udal Musika Eskolako Bandak Basteron joko du martxoaren 24an. 20:00tan. AIURRI

“Musika baliabide bikaina da kulturantzatasunean sakontzeko”

MIKEL EMEZABAL UDAL MUSIKA ESKOLAKO BANDA KO ZUZENDARIA

“Munduko Doinuak” kontzertua emango du Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandak ostiralean, 20:00etatik aurrera

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Kultur Aniztasunaren Ekintza Planaren barnean kokatzen da emanaldia. Banda jatorri desberdineko andoaindarrekin elkarlanean aritu da kontzertua osatzeko.

Nola sortu da egitasmoa?

Andoaingo Udalak, Ongi Etorri Eskolara proiektuak eta Musika

Bandak elkarlanean sortutako ekimena da. Bandako kideek pentsatu genuen geuk ere, musika baliabide izanik, egin diezakegula ekarpena Andoaingo Kultur Aniztasunaren Ekintza Planari eta berarekin bultzatu nahi den ideiarri. Eta horrela sortu zen kontzertuaren egitasmoa.

Musika komunikatzeko bitartekorik unibertsalena izan daiteke kultura anitzak hurbiltzeko, elkar ezagutzeko.

Jakina baietz! Musika gizakiok elkarrekin komunikatzeko daukagun izugarritzko tresna da, eta horixe bera komentatu diet azken asteetan, kontzertuaren prestaketan, Venezuela, Errumania,

Nigeria, herrialde arabiarretik eta beste zenbait lurraldetatik etorritako herrikideei. Nire esperientzia pertsonala kontatut diet: nireak ez diren beste hizkuntzetako herrialdeetara joan izan naizenean, musika ezinbesteko baliabide bilakatu izan zaidala bertakoekin aurreneko hartu-eman egiteko, hasieran normalak izaten diren inkomunikazio eta hotsasun egoera horiek hausteko.

Nolako bizipena gertatzen ari da jatorri desberdinetako andoaindarrekin egunotan egin duzuen harremana?

Aberasgarria! Kontzertuaren prestaketari ekiteko ez ezik, bakoitzak bere iritzi eta usteak elkar trukatzeko ere baliagarri izaten ari zaigu kontaktua. Beren sentipenak adierazi dizkigute, eta azpimarratzekoa da nola aitortu dizkiguten zer sentitzen den herri arrotz batera bizitzera joaten zarenean. Alegia, beldurra izaten dela lehenbiziko sentimendua, ezezagunak zaizkizun herritarrek, hizkuntzak, ohiturak, janzkerak... topatzen baitituzu. Buruan beldurraekin lotutako galdera ugari pilatzen zaizkie: jendeak, kalean, nola ikusiko ote dituzten, zer esango ote duten, nola erreakzionatuko ote duten holako edo halako egoeratan... Beren seme-alabak bertan ahalik eta egokien integratzea daitezen izaten da beren lehentasuna, eta behin helburu nagusi hori bideratuta, beraiek gizartearen ezagutzera ematen ahalegintzen dira.

Alde horretatik, biziki eskertzen dituzte “Ongi Etorri Eskolara”, “Su artean Gure artean” eta antzeko ekimenak, deseatzten egoten baitira bertako jendea ezagutzeko, eta horien aurrean diren bezala agertzeko. Hunkituta agertu dira ostiraleko kontzer-

tuarekin, eta pozgarria da hori Bandako musikari guztiontzat. **Zein erreperitorio eramango duzue Basteroko oholtzara?**

Munduko lurralde batzuetara egingo dugu bidaiia, eta sustrai txinarra, irlandarra, eskoziarra... duten doinuak interpretatuko ditugu. Jatorri desberdineko andoaindar horiekin ere prestatu dugu ezusteko polit eta hunkigarria, baina ezin dugu jakinarazi erreperitorioko atal hori; ezustekoan atalean gordeko dugu! Horrek ikusmin berezia piztu baldin badio baten bati, badaki zer egin, Basterora hurbildu!

Nola ikusten dituzu Bandako musikariak, kontzertuaren atarian?

Ilusioz beterik! Egin kontu zer nolako sakrifizioa egiten duten: astero-asteroko entseguak, abestiak etxera eraman eta haiekin sakontze lanak... Azken batean, zuzeneko kontzertua, ehunka pertsonen aurrean egiten den emanaldia, prozesu gogor baten azken urratsa besterik ez da. Eta, bien bitartean, luzea bilakatzen da negua, jendaurrekorik gabekoa, eta nahiz eta musikazale amorratuak izan, erabat naturala da aparteko motibazioaren bat behar izatea entsegunen diziplina horri eusteko. Kontzertuak dira pizgarri horiek.

Egia esan, hurrengo asteetan agenda nahiko bete daukagu. Ostiral honetakoa egin eta gero, beste hiru emanaldi dauzkagu zain, maiatzean: Andoainen Santa Krutzetan, Asteasun eta Martuteneko espetxean presoentzat.

Munduko Doinuak, kantutegia:

- Xian (Henk Hogestein)
- Four Norfolk Dances (Philip Sparke)
- Shirim (Piet Swerts)
- Diss Dance (Philip Sparke)
- Riverdance (Bill Whelan)



Udal ordezkariak, Jaialdiko koordinatzailea, Salkineko ordezkaria eta Krin taldeko musikariak, aurkezpen egunean.. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Aperitif eguerdi parteko saio berezia egingo da aurten ere. 12:00etatik aurrera, Arima (Bilbo) Zumea Plazan ariko da; 13:00etan, Siglas (Donostia) Plaza Morean; eta azkenik, Krin taldea (Irun) Goikoplazan, 14:00etan. Hiru emanaldiak Salkin elkartearen laguntzari eta elkarlanari esker sustatuko dira.

Joan den ostiralean Plaza Morean egin zuten XV. Andoaingo Rock Jaialdiaren aurkezpena, eta bertan izan ziren Udaleko Txitxu Ruiz kultura zinegotzia, Laura Landa kultur teknikaria, Juancar Garcia Bloody Mary promotorako ordezkaria eta jaialdiaren koordinatzailea, Krin taldeko hiru musikari (Fran Romero, Ion Vara eta Mikel Etxegarai), eta, Marijo Irastorza Salkineko ordezkaria.

“Aurtengo jaialdiak ez du hutsik egingo, indartsu dator” adierazi zuen Txitxu Ruizek agerraldian.

Juancar Garcia Jaialdiaren koordinatzaileak karteletako taldeak banan bana aipatu zituen, bakoitzetik bizpahiru xehetasun gogoraraziz.

Garaje kutsuko Rock Jaialdia

Nafarroa Plazan ekainaren 10ean izango da, eta Black Lips garage-rock estiloko talde estatubatuarra da aurtengo izar nagusia. The Schizophonic, The Giant Robots, The Courettes, Chocolat Billy eta Nize taldeek osatuko dute Jaialdia

* **Black Lips.** Talde estatubatuarra izango da Jaialdiko izarra, esan bezala. 13 urte zituztela osatu zuten taldea 1999an, eta geroztik mundu guztian zabaltzen dute beren musika indartsua, *garaje* estilotik hasi eta egungo rock sofistikuagorako bidea

GARAJE KUTSUA DAKAR AURTENGO XV. ROCK JAIALDIAK

eginez. *Apocalypse Love* disko berria kaleratu zuten iaz, eta tartean da Bad kids kanta ezaguna, Spotify plataforman jada 23 milioi entzunalditik gora dituen abestia.

* **The Schizophonic.** Kalifornia (AEB) da bigarren talde hori ere, “James Braun edo MC5 taldea gogora ekartzen ditu. Ameriketako musika zale askok diote, zuzeneko bandarik onena eta basatiena dela han bertan. Abeslaria ero moduan ibiltzen da oholtza gainean, eta Jaialdiko izarretakoa izango da

ziurrenik”, Juancar Garciairen ustetan.

* **The Giant Robots.** Talde suitzarrak, underground rock eszenan gero eta izen handiagoa du. Garciak adierazi zuenez, “60ko hamarkadako *garaje* egiten dute, baina eguneratua.

EUROPAKO, ESTATU BATUETAKO ETA EUSKAL HERRIKO MUSIKA TALDEAK IGOKO DIRA TAULARA

Egia da *garaje* ez duela arorik distiratsuen bizi, baina baita ere, azpimarratzekoa da talde suitzarrak, onentxoenetakoa baita egun”.

* **The Courettes.** Bikote dani-markar-brasildarra da, aise mugitzen dena *garaje* estiloaren, 60ko Girl Groupen soinuaren eta doo woop-aren artean. Soul-rock and roll zoragarria egiten du, eta aldizkari espezializatuak haien 2021ko lana urteko onenen artean hautatu zuen.

* **Chocolat Billy.** Talde frantsesa, soinu basati eta indartsua eskaintzen du zuzenean, partaide guztiek elkarren artean instrumentuak trukatzeko dituzten bitartean.

* **Nice.** Bilboko taldeak emango dio hasiera Nafarroa plazako Jaialdiari. Hirukoteak 2020an *Ezin* lanarekin egin zuen debuta euskal eszenategian, noise-rock, hardcore eta punk doinuekin.

Aperitif, etorkizun oparoko hiru euskal talde

Arima, Siglas eta Krin euskal taldeek joko dute *Aperitif* izeneko emanaldi sortan, eguardi partean. Azken urtetan osatu diren taldeak dira, eta musika zaleentzat ezusteko atsegin eta gozagarriak eskaintzeko prest helduko dira Andoainera.

* **Arima.** Beldurrez beste egitean izenburuko diskoa kaleratu berri du Rock talde bizkaitarrak. Paule Bilbao kantari eta gitarra-joleak sortu ditu diskoaren abestiak, bikainak bezain ilunak. Hala dio: “Bidai baten amaiera da Beldurrez beste egitean. Egonaldi luze batek uzten dituen ziurgabetasunak, emozio berri eta ezezagunak, maitasun esperientziak eta ikasketak biltzen dituen lana. *Metamorphosiaren* bukaera. Ur sakon eta hotzetatik atera, eta eguzki izpiak azalean sentitzea”.

* **Siglas.** Donostiako banda, *garaje* kutsuko *pop-yeye*-a eta freskoa eginez melodia itsaskorrrak zabaltzen ditu zuzeneko bikainarekin.

* **Krin.** Pandemiaren ostean Irungo lau musikariek sortua, 60ko *garaje-rock* soinu bortitz eta ilunak ditu ipar. Halako estiloko formazioetan ohikoa ez den instrumentua, armonika, erabiltzen du, eta zuzeneko zorrotz eta apaingarririk gabekoa eskaintzen du.



Sarriegi, Arratibel eta Bakero Bastero Kulturgunean. Entzule ugari izan zuten aurrean. **AJURRI**

Zuloak eta erronkak

FUTBOLA "Emakumezkoen futbolaren iragana eta oraina: profesionalizazioarako bidea" solasaldia izan zen Basteron joan den asteko asteazkenean. Euskaldunaren mendeurrenaren harira antolatu zen hitzordua

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN
Aurrera doaz Euskalduna klubaren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak. Hala, joan den aste-ko asteazkenean, "Emakumezkoen futbolaren iragana eta oraina: profesionalizazioarako bidea" solasaldia izan zen Basteron. Amaiur Sarriegi Real Sociedad taldeko jokalaria nahiz Ixiar Bakero futbol jokalaria ohia izan ziren gonbidatuak, eta, Ainara Arratibel Berriako kirol kazetariaren gidaritzapean, emakumezkoen futbolaren garaipenak, zuloak eta erronkak izan zituzten hizpide.

Biek ala biek izan dute txikitik baloi bat oinetan, eta, haurrak zirela, ordu luzez egoten ziren futbolean, izan eskolako patioan, izan auzoko plazan. Zeintzuk ziren, garai hartan, kirol horretan beren erreferente? "Gizonezkoak", azkar erantzun

zuen Bakerok, "emakumezkoen kasuan, ez baitzegoen talderik, ez geneukan inor. Guk sortu genuen Añorgako lehen ekipoa. Orain, urrats handiak eman dira". Bi hizlariak hiru hamarkadako aldean izan arren, Sarriegik ere ez du oroitzen emakumezko erreferenterik, begirada denboran atzera botatzean.

Amasorrain Ikastolan sortu zen Añorgako lehen emakumezko taldea, eta eskolako patioan egiten zituzten Bakerok eta haren taldekideek entrenamenduak, "eguneko azken orduetan, argirik gabe eta ahal zen moduan".

**AMAIUR SARRIEGI
REALEKO JOKALARIA
ETA IXIAR BAKERO
JOKALARI OIHA ARITU
ZIREN SOLASEAN**

Partidak tankerakoak izan ohi ziren, zelai txiki batean, harik eta hamaikako taldearekin jokatzen hasi ziren arte. Hori horrela, egoerak hobera egin duelakoan da Realeko jokalaria: "Gure aurrekoek apurtu zuten pareta. Guztia errazago ailegatu zaigu guri, nahiz eta, tarteka, zenbait oztopo ere izan ditugun". Ikuspegi teknikoari eta fisikoa-ri erreparatuta ere, aldaketa eman da, eta, urtetik urtera, geroz eta zorrotasun maila handiagoa eskatzen zaie jokalariei. Sarriegiren iritziz, azpiegiturak eta baliabideak areagotzeari lotuta dago jautzia.

Harrobiak

Ezin aipatu gabe utzi, bi protagonisten ibilbidean, Añorga Kirol Elkarteak, bai bata, bai besteak, bertan, urrats garrantzitsuak eman baitzituzten: "Oi-

nari garrantzitsua" da klub hori Sarriegirentzat, bide-urratzailea, "beste talde batzuekin batera, Realari indarra eman diote".

Hari horri tiraka, Bakeroren esanetan, "hutsetik" hasi ziren, baldintza bertsuetan, Añorgako eta Oiartzungo futbol taldeak. Izugarriko marka onak egin zituzten, emakumezkoen futbolaz inork gutxi zekien garaietan, Espainiako Estatuan talde erreferente bihurtzeraino: Añorgak, esaterako, hiru Liga irabazi zituen (1991/92, 1994/95 eta 1995/96), baita, hiru biderrez, Erreginaren Kopa eskuratu ere (1990, 1991 eta 1993). Garaipenak garaipen, toki ia ikusezina izaten zuen emakumezkoen futbolak egunkarietako lerroburretan, joan den mendearen amaieran. Ikusgarritasunarekin lotzen du hori Sarriegik: "Badirudi, garaipen bat egon behar dela tarteko emakumezko kirolari batek presentzia izan dezan hedabideetan. Baina, zergatik ez bihurtu erreferente galtaile garenetan ere?".

Orainari begira

Denborak aurrera egin ahala, hoberantz jo dute emakumezko futbolarien baldintzek, ikusgarritasunari, ordutegiei baita baliabideei dagokionez ere. Sarriegiren ustez, "jendartean eman diren aurrerapausoekin" du zerikusia, "futbola badelako, zentzu batean, egoeraren ispilu". Harrotasunez bizi du garapena Bakerok, nork bere aletxoak jarritan, aurrera egin delako bidean. Iraganera jauzi eginda, haren taldearen garaipen-ospakizunak ez zuten inolako zerikusirik egungo egoerarekin: "Añorgara iristen ginen, suzuria bota eta txalo artean jasotzen ziguten etxeokoei zein lagunek", du go-goan jokalaria oiha, "eta, hurrengo egunean, lanera!".

Pixkanaka haziak ereiten joateak geroz eta uzta oparoagoa ekarri du: haur, gazte eta heldu askorentzat erreferente bihurtu dira Realeko jokalaria. "Ilusioa egiten dit eta pozgarria zait norbaitek guran inspirazioa bilatzea. Ardura ere badakar horrek, baina erantzukizun polita da", dio Sarriegik. Atmosfera berezia sortzen da asteburuetan Z-7ko zelaian, zaleekin gertutasuna izateari garrantzia ematen baitio emakumezkoen futbolak: "Argi izan behar dugu nondik gatozen [Bakero seinatuz] esentzia mantentzeko".

Lan-hitzarmena, oinarri

2019. urte amaieran, greba mugagabeari ekin zioten Espainiako Iberdrola Ligako jokalariek, urtebeteko bileren eta desadostasunen ondotik, lan-hitzarmen duina aldarrikatzeko. Tentsioak tentsio, hainbat lorpen eskuratu zituzten, adibidez: gutxieneko % 75eko lanaldia denentzat, jokalaria Gizarte Segurantzaren izena emanda egotea, amatasun baimenak izatea... Mugarrak izan zen, bai, baina lanean jarraitzeko oinarria ere bai, Sarriegiren adierazpenez: "Ez nuen hain gertutik bizi izan, baina borroka handi baten ondorioz lortutako hitzarmena izan zen hura".

Ido beretik, aurtun, profesional izendapena eskuratu du Ligak eta horrek, tarteka, presioa ere badakarrela aitortu zuen Sarriegik mintzaldian; zelaitik kanpo, batez ere, sare sozialetan edo komunikabideetan sumatzen du hori jokalaria: "Oso epaitua da kirol mundua, are gehiago, futbola. Kontuan hartu behar dugu kirolari ororen atzean pertsona bat dagoela, bere arazoekin, kontuekin edo baldintzekin. Errespetua oso garrantzitsua da". Halaber, afera lurrera ekarrita, zuloak ikusten dizkiote egungo jokalariek profesionalizazioaren aitortzari, egoera hobetzeko, benetako aldatetarako eman ezean: besteak beste, ez zieten utzi besoko mo-rea soinean eramaten Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean, ez dira jokalaria guztiak ateratzen Ligak Paninirekin batera atera berri dituen kromosortan eta inor ez zegoen beraiei domina zintzilikatzeko aurtengo Super Kopako finalean. Mahai batean zeuden eskegita eta nork bere buruari ipini behar izan zion txapeldun edo txapeldunorde garaikurra.

Amasorrain Ikastolako jolas-tokitik hasi, eta Reale Arena zalez beteta ikusteraino, garaipen itzelak izan ditu emakumezko futbolaren ikusgarritasunak, aitortzak eta garrantziak. Ez da erraza izan bidea, ostera, eta, gaur egun ere, makina bat zuloarekin egiten dute topo jokalariek. Iragana eta oraina lotu zituzten solasaldian Ixiar Bakero eta Amaiur Sarriegik. Etor-kizunari begira ipini behar orain, norgehiagoka ez baita amaitu. Ez, behintzat, emakumezko futbolariarentzat.

“Umiltasunez eta errespetuz lehiatzen gara aurkariekin”

PABLO DE TORRES URNIETAKO ERREGIONAL MAILAKO TALDEAREN ENTRENATZAILEA
FUTBOLA Martxa ezin hobearrekin dabil UKE gizonetako erregionalen lehen mailako igoera fasean. Bigarren itzulia dute aurretik



Erregional mailako taldea, denboraldi honetan sartutako gol bat ospatzen. UKE

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Igoera faseko lehen itzulian, mailaz igotzeko kalitatea duzuela erakutsi duzue. Zaila izango al da lehen postuei eustea bigarrenengan?

Taldeak lan gogorra egin du denboraldi honetan, eta aurre denboraldia, joan den urteko abuztua, oso urrun dago, jada. Banakako jokalariek izatetik, sintonian lehiatzen duen taldea izatera igaro gara, denboraldi hasieran ezarritako helburua lortzeko.

Aipatzekoak dira jokoaren kalitatea, konpromisoa eta jarraia. Bigarren bueltan, postuari eustea lotura zuzena izango du ia jokalaria guztiak itzuliari aurre egiteko prest egotearekin. Izan ere, lesioek oztopatu egin gaituzte, eta, orain, jokalaria batzuk osatzeko prozesuan daude,

eta beste zenbait ez dira garaiz berreskuratuko. Ez da erraza izango, baina bakoitzaren lanarekin eta ahaleginarekin lortuko dugu.

Oraingoz, zazpi partida jokatu dituzue guztira igoera fasean: bost irabazi, bi galdu. Azken jardunaldian, ezin izan zenuten Landetxa zuen lehiakide zuzena irabazi.

Partida guztiak irabazi eta galdu daitezke. Gola sartzeko pare bat aukera garbi izan ondoren, penalti bidegabe bat egon zen, gure kontrara. Jarraian, gure

"JOKALARIAK ETA STAFF TEKNIKOA KONPROMISOZ ETA AHALEGIN HANDIZ ARI DIRA LANEAN"

atean sartu genuen eta, azkenik, markagailua 0-3 itxi zuen Landetxak, gol itzelarekin. Gure aurkariaren aldeko zenbait baldintza eman ziren norgehiagokan.

Denboraldi hasieran igoeragatik lehiatzea zenuten helburu, edo ezusteko etorritako aukera izan da?

Hainbat jokalaria elkartzea izan zen lehen helburua, talde bat osatzeko. Behin hori lortuta, mailaz igotzeko borroka egitea dugu xede.

Zein giro dago taldean?

Eskerrak eman behar dizkiet bai jokalariei, bai ondoan dudan staff teknikoari, konpromisoz eta ahalegin handiz ari baitira lanean. Taldean oso giro ona dago, bat gara eta nabarmena da hori zela barruan zein kanpoan. Gutako inor ez da honetaz

bizi eta guztiok egin diegu uko gure egunerokoan beste gauza batzuei.

Lehiaketaren ekuatorea zeharkatuta, txapelketaren azken txanpan murgildu berri zarete. Zeintzuk dira aurrera begirako erronkak?

Ahalik eta lesionatu gehien berreskuratzea eta, partidaz partida, lanean jarraitzea. Denboraldia hasieratik dago planifikatuta, baina lehiaketak eta taldearen egoerak malgutasun handiagoa eskatzen dizkigute astero agertzen zaizkigun erronka berriei ekiteko.

Zeintzuk dira orain arteko mailan mantentzeko gakoak?

Daramagun lan-ildoari jarraitzea, lesioei erreparatzea eta lana, lana eta lana.

Eraztasunez irabazi zenuten Lengokoak, joaneko partidaren (2-6). Halere, ez daukazue aurkari erraza asteburu honetan, bigarren itzuliko lehen partidaren.

Partida bakoitza mundu bat da, aldiro, ezberdinak direlako baldintzak. Umiltasunez eta errespetuz lehiatzen gara aurkariekin. Zazpi jardunaldi gelditzen dira, gutxi gorabehera, bi asteko atsedendiarekin tartean. Lanean jarraitu behar dugu, azken jardunaldira bitarte.

Zerbait gehiago gehitu nahiko zenuke?

Eskerrak eman nahi dizkiegu taldearekin elkarlanean ari diren jokalaria jubenilei, bat gehiago balira bezala aritzen baitira gurean. Era berean, zaleei eskerrak eman nahi dizkiegu, etxean nahiz etxetik kanpo erakusten diguten babesagatik. Gurekin jarrai dezatela eskatzen diegu, haien beharra baitugu; aurkaria errespetatzea, arbitroak eta, oro har, hango eta hemengo publikoa.

FUTBOLA

Erregional maila, igoera fasea

ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Urnieta 0-3 Landetxa

SAILKAPENA

1	LANDETXA	15 puntu
2	URNIETA	15 puntu
3	SANPEDROTARRA B	11 puntu
4	MARIÑO	10 puntu
5	LENGOKOAK	9 puntu
6	TRINTXERPE	6 puntu
7	VASCONIA B	6 puntu
8	BEHOBIA	5 puntu

ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

17:30 Urnieta-Lengokoak / Lar, 25



Haize Lekuona. UKE

Urnieta Quel Abogados taldearen garaipena

ESKUBALOIA Dexente

nagusitu ziren urnietarrak markagailuan azken norgehiagokan

Erredakzioa URNIETA

Iragan asteburuan, Urnieta Quel Abogados senior taldeak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Urolaren aurka (29-16). Gizonetako senior taldeak, berriz, porrot egin zuen.

Hasieratik urnietarrak nagusi izan ziren partidaren, nahiz eta lehen zati orekatua jokatu. Norgehiagokak aurrera egin ahala, gorridunen aldeko partida bilakatzen hasi zen, markagailua horien alde irauli arte. Defentsa lanetan sendo aritu ziren eta erasoan oso fin; horiek horrela, Urola taldeari abantaila handia ateratzea lortu zuten, partida amaierara lasaitasunean iritsita. Quel Abogados taldeak txapelketako laugarren postuan sailkatuta jarraitzen dute.

Urnieta Artola Harategia gizonetako senior taldeak, berriz, ez zuen zorte bera eduki: Legazpiren aurka galdu egin zuen (20-26). Bisitariak abantaila txikia lortu zuten, hasieratik. Bigarren zatian, abantaila hori handitzea lortu zuten.

ESKUBALOIA

Emakumezkoak, 1. Lurraldeko txapelketa

1	EIBAR	35 puntu
2	IRAULI	29 puntu
3	ORIO	27 puntu
4	URNIETA	24 puntu

Podiuma, Ultra Trailean

Asier Rajado andoaindarrak lorpen ikusgarria egin zuen Bartzelonan, iragan asteburuan. Brontzeko domina lortu zuen 43 kilometroko lasterketan.

Andoaindarrak sare sozialetan jarri zuenaren arabera, lasterketa azkarra izan zen, baina momentu teknikoekin eta zoko konplexuekin. Oso pozik agertu da lorpenarekin.




RAJADO

Emakumeen pala topaketa

Buruntzaldeako Emakumeen III. Pala Topaketa egin zen herriko Arrate pilotalekuan, pasa den asteburuan.

Adin guztietako emakumeak bertaratu ziren, kirolaz gozatzeaz gain, elkar ezagutzeko. Askotariko jokoak eta ariketak egin zituzten, teknika landu eta, bitartean, ondo pasatzeko. Gauean, berriz, afari batekin borobildu zuten eguna.



ROMERO

Euskadiko txapeldunorde

Aimar Murua andoaindarra Oñatiko Duetloian lehiatu zen iragan asteburuan, distantzia motzean. Bigarren postuan sailkatuta, maila bereziki ona erakusten ari da.

10 kilometro lasterka, 40 bizikletan eta beste 10 lasterka egin zituen. Gainera, eguraldi txarra medio, lasterketaren gogortasuna are handiagoa izan zen.



MURUA

FUTBOLA Jubenil mailako taldea, bigarren postuan

Jubenilen Ohorezko Mailako 23. jardunaldian, Euskaldunak Iiintxaren aurka galdu zuen (1-0). Azken bi jardunaldietan, puntu bakarra lortu arren, sailkapeneko bigarren postuari eusten diote..

FUTBOLA

Ohorezko jubenil maila

SAILKAPENA

1 ANAITASUNA	47 puntu
2 EUSKALDUNA	42 puntu
3 ZUMAIKO	38 puntu
4 ORDIZIA	35 puntu
15 MONDRAGON	23 puntu

ASTEBURUAN

17:15 Euskalduna-Mondragon / Lar, 25

FUTBOLA Borroka estuan da gorengo taldea

Azken sasoi honetan 3. eta 4. postuan sailkatuta, borroka estua du Touring taldearekin. Asteburuan Euskaldunak Orioko garaitu zuen (3-1). Datorren jardunaldian, 8. postuan eta 33 punturekin sailkatuta dagoen Sanpedrotarraren zelaian ariko dira.

FUTBOLA

Gorengo maila, 23. jardunaldia

SAILKAPENA

1 REAL UNION	55 puntu
2 DEUSTO	48 puntu
3 TOURING	41 puntu
4 EUSKALDUNA	41 puntu
5 OSTADAR	37 puntu
6 ROTETA	35 puntu
7 ALLERRU	34 puntu
8 SANPEDROTARRA	33 puntu

ESKUBALOIA Leizaran Ernioaren garaipena, Txingudiren kantxan

Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak bolada onari eusten dio, bosgarren garaipena jarraian eskuratuz. Azkena, Txingudiren kantxan (21-30). 1. lurrealdeko senior mailako gizonezkoen liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, bigarren postuan daude. Leizaran eta Urola borroka bizian dira, bigarren postuari eusteko.

Txingudi-Leizaran, asteburuan

10. postuan sailkatuta daude, eta bi talderen artean hamar garaipeneko alde dago. Alde handia, beraz.

ESKUBALOIA

1. lurrealdeko senior maila, gizonezkoak

SAILKAPENA

1 ORDIZIA	31 puntu
2 LEIZARAN	28 puntu
3 UROLA	28 puntu
4 SAIEKO	25 puntu

SASKIBALOIA Aterpe eta Ganbara kadeteen garaipenak

Junior mailako Aterpe izan zen garaipena eskuratuz zuen talde bakarra. Asteburuan, kadete mailako Ganbara ariko dira Allurralden.

SASKIBALOIA

Ganbara saskibaloia taldea

EMAITZAK

ANDRAITZ-GANBARA JUNIOR	90-34
ATERPE JUNIOR-TAKE	45-42
ERREOIBIDE-KADETEAK	20-48

ASTEBURUAN

09:00 Ganbara kadeteak-Ordizia / Lar, 25



berria
ERREMUNTE TXAPELKETA 2023
zuk badakizulako

GALARRETA, JAI ALAI HERNANI
MARTXOAK 25 LARUNBATA
16:30 ETIK AURRERA

BERRIA TXAPELKETA (35 TANTO)
ZALDUA II - ODEI
LOITEGI - ESKUDERO

BERRIA TXAPELKETA (35 TANTO)
GOIKOETXEA V - AIESTARAN VI
URRUTIA II - APEZETXEA

5 sukia | PAPELERA GURUZOGANA | AIURRI



Ekitaldi ugari egiten ari dira asteotan, eta datorren astekoa aste berezia izango dela aurreratu daiteke. AIURRI

Urdin kolorez margotuko du Euskaldunak Andoain

FUTBOLA Hiru eguneko ekitaldi-sorta antolatu du herriko Euskalduna kirol klubak, datorren astean, mendeurrenako festari jarraipena emateko. Apirilaren 1ean, esaterako, gizarte eta kultur arloko eragile asko batuko dira ospakizunera

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN
 “Herriko aste urdina” antolatu du Euskaldunak, mendeurrenako ibilbidea ospatzeko. Hala, martxotik apirilerako jauzia ekintzaz beteta egingo dute andoaindarrek. Egitarau oparoa antolatu du kirol klubak, herriko makina bat eragilerekin batera.

Martxoak 28, asteartea Kalejira

Zumea kaletik Kaletxiki auzora bidean, giro ezin hobea ipiniko du Gora Kaletxiki txarangak herriko kaleetan barrena. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da hitzordua eta iluntzera bitarte luzatuko dute kalejira.

Martxoak 29, asteazkena Ibilu Andoain berezia

Asteazkenean lez, oinezko martxa izango da adinekoentzat goizeko 11:00etan hasita. Bada, herriko Ubitarte futbol-zelaian amaituko da ibilbidea eta Alberto Aguirre abesbatzak hain-

bat pieza interpretatuko ditu bertan, ekitaldia borobiltzeko.

Apirilak 1, larunbata Ekitaldi erraldoia Ubitarten

Mendeurrenako data bereziene-tarikoa izango da larunbata. Izan ere, eguerdiko 12:00etan emango zaio hasiera egunari eta, Andoaingo kaleetan, hamai-ka ekitaldiz gozatzeko aukera

izango dute bizilagunek. Ubitarten izango da amaiera-festa, eguerdiko 13:00etan eta, Euskaldunarekin batera, askotariko eragileek egingo dute posible klubaren omenaldi berezia: Andoaingo trikitilariak, Kantu-jira, dultzaineroak, Lebiton konpartsa, Zuena, Maizorri txalaparta, Punttuka bertso-eskola, Olagain txistulari elkarte eta Urki.



BURUNTZALDEA IKT

Hitzorduz beteriko asteburua

IGERIKETA Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Udaberriko Sarian izango dira, Irungo Azken Portun. Goiz eta arratsaldeko jardunaldietan parte hartuko du Ane Meyer andoaindarrek. Oihan Matutek, berriz, teknifikazio saioa izango du Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. Azken hori Gipuzkoako Federazioaren deialdia izan da.



ANDOAINGO

Estatu mailako kopan

TXIRRINDULARITZA Andoaingo Txirrindulari Eskolako neskak Beasain aldeko errepedeetan ibili ziren aurreko asteburuan. Kadete mailan Irati Aranguren eta Izaro Etxarri aurrealdean ibili ziren. 28 kilometroko lasterketan Aranguren 8. sailkatu zen, eta Etxarri 15. postuan. Junior mailako proba 55 kilometrokoa zen, eta, bertan, Izaro Zuriarrainek parte hartu zuen.

200 lasterkari irteeran

TXIRRINDULARITZA Junior mailako lasterketa Azpeitin izan zen. 79 kilometroko distantzia zuen lasterketak, eta berrehun lasterkari elkartu ziren irteeran. Etapa gogorra izan zen, eta tropela mila zatitan iritsi zen helmugara. Iker Ugartemendia 22. postuan sailkatu zen, lasterketa txukuna osatuz. Ekhi Arrieta eta Xemark Arteaga lehen ehun lasterkarien barruan sailkatu ziren.



ANDOAINGO

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 23

ANDOAIN, URNIETA Euskara
Errigora ekimena martxan da. Badator Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura! Erosketa egin daiteke Errigora.eus gunean bertan.
Azken eguna: Martxoak 29.

URNIETA Deialdia
Gaztelekuak ekitaldi sorta antolatu du, apirilaren 3tik 14ra.
Informazioa: 608 928 311.
Azken eguna: Martxoak 24.

OSTIRALA 24

ANDOAIN Musika
Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandaren emanaldia.
20:00, Bastero.

LARUNBATA 25

ANDOAIN Garbiketa lana
Oria ibaia garbitzeko deialdia egin du Udalak.
09:30, Allurralde.

ANDOAIN Batzarra
Karrika elkarteak deituta.
15:00, 1.deialdia. 16:00. Karrika.

IGANDEA 26

ANDOAIN Haur antzerkia
"Arrainak bihotzean", Leire Bilbaoren jatorrizko ideiatik abiatuta eta Marmar konpainiak ekoiztuta.
12:00, Bastero.



"Irrits" filmaren eszena. IRRITS

ANDOAIN Laburbira
7 film-laburrez osatutako bilduma eskainiko da aurtengo Laburbira zikloan. Gaur egungo zinemagintzaren lagin aparta da: "Muskil", "Olatuen isiltasuna", "Irrits", "Erlojupekoa", "Hitzak", "Asko falta da?" eta "Koadro goriari heldu".
Martxoak 29, asteazkena. 18:30, Bastero.

ASTELEHENA 27

ANDOAIN, URNIETA Hezkuntza
Batxilergoaren aurre-matrikula.
Martxoak 27-Apirilak 21.

ASTEARTEA 28

URNIETA Bilera
Jai Batzordearen bilera. Gazte Festak izango dituzte aztergai.
18:00, Lekaio.

ANDOAIN Literatur solasaldia
"Gordo de feria", Esther Garcia.
19:00, Bastero.

OSTIRALA 31

ANDOAIN Ikuskizuna
"Katuen kontuak" musika eta literatur emanaldia. Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga igoko dira taula-gainera.
20:00, Bastero.

IGANDEA 2

URNIETA Magia saioa
"Sentsazioak" ikuskizuna taularatuko du Hodei magoak. Erritmoz eta umorez betetarikoa.
17:30, Saroben.

Udaberriko Jabekuntza Eskola Urnietara iritsi da

Hitzaldiak, irakurketa feminista-tailerra, zine foruma eta autodefentsa feminista izango dira, beste batzuen artean

Erredakzioa URNIETA
Udaberriko Jabekuntza Eskola aurkeztu du Urnietako Udalak berriki. Programazioa apirila eta ekaina bitartean gauzatu da eta ekintza gehienak Lekaio


kultur etxeko areto nagusian gauzatu dira. Askotariko hitzorduak izango dira, feminismoa oinarri, afe-rari hainbat ikuspuntutatik erreparatzeko. Besteak beste,

Emagin elkarteak irakurketa tailer feminista eskainiko du. Garbiñe Larrearen eskutik "Sendabelarrek dakitena" hitzaldia izango da entzungai. Horretaz gain, hiru Zineforum egongo dira AMHER-ek gidatuta, eta, baita, autodefentsa feminista tailerra ere. Jabekuntza Eskolako ekintzetan parte hartu nahi duten emakumeek martxoaren 29tik apirilaren 4ra arte eman beharko dute izena.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

Mari(dos)

Lar, 25. 19:30, 22:00.
Ig., 26. 19:30.
Astl, 27. 19:30, 22:00.

Violeta, el hada traviesa

Lar, 25. 17:00.
Ig., 26. 17:00.



SINOPSISIA



Mari(dos)

Zuzendaria: Lucia Alemany. **Gidoia:** Pablo Alen, Breixo Corral. **Aktoreak:** Paco Leon, Ernesto Alterio, Celia Freijeiro, Raul Cimas, Jesus Olmedo, Emma Hernandez, Marta Costa, Lucia Gomez, Maria Cordoba. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 102 min.

Bi senar eta emazte bakarra

Tonik (Paco Leon) eta Emiliok (Ernesto Alterio) dei tragiko bera jasotzen dute: emazteak koman daude eski-estazio batean elur-jausi bat izan ondoren. Ospitalean aurkezten direnean,

aurkikuntza harrigarri bat egiten dute: beren emazteak, pertsona bera dira, Laura (Celia Freijeiro). Emilio eta Toni borrokan ari dira erakusteko nor den benetako senar bakarra.



ANARBE

Añarbeko ura, etxe gehienetan

Urnietako udalerrri ia osoa Añarbeko sistemako ur-horniduran sartuko da. Horixe erabaki du, berriki, Añarbeko Uren Administrazio Kontseiluak. Aurrekontua bost milioitik gora eurokoa izango da, eta kostua Añarbeko Urak sozietateak hartuko du bere gain. Udalak ohar bidez adierazi duenez, "hobekuntza garrantzitsua da urnietarrentzat".



AIURRI

Jai batzordearen bilera, Urnietan

Gasze Festetarako proposamenen kontrastea egin nahi dute, eta, horretarako, bilera deitu dute. Datorren martxoaren 28an izango da Lekaion, arratsaldeko 18:00tan hasita. Udalak, bestalde honakoa jakinarazi nahi du: "Gogorarazten da proposamenak jaiak@urnieta.eus helbidera bidali behar direla, martxoaren 27a baino lehen".

Gozogintza-ikastaroa, Gazteloren eskutik, Zilegi Eskolan

Gaztelok gidatu du berriki egin den Zilegi Eskola: pasta eta trufa gozoak egiteko aukera izan zituzten herritarrek

Erredakzioa URNIETA

Gozogintza-ikastaroa izango zen herrian, joan den martxoaren 15ean, Urnietako AEK-ko Zilegi Eskola medio. Gaztelo gozotegiko Juanjo Elosegik gidatu

zuen saioa Santa Krutz elkarrean, arratsaldeko 18:00etan: "Gogotsu agertu zen jendea, jakin-minez". Bi ordu iraun zituen saioak eta hamasei bat lagun gerturatu ziren, masusta



Ackzesible taldeko kideak. AIURRI769768

Irisgarritasuna aztertze bilerara deitu dute Basteron

Ackzesible-Andoain irisgarria elkarteak antolatu, larunbat honetarako

Erredakzioa ANDOAIN

Ackzesible-Andoain Irisgarria elkarteak antolatuta, irisgarritasuna aztertze bilerara irekia deitu du Bastero Kulturgunean. Datorren martxoaren 25ean, larunbatarekin, goizeko 10:30etan hasita. Elkarteak irisgarritasunarekin sentsibilizatuta dauden Andoaingo pertsona guztiak gonbidatu nahi ditu, elkarren berri edukitzeko. Bilerari begira, elkarteak gorra diren pertsoneri ohar berezia luzatu die, parte hartze aukera izan dezaten. Iñigo Iruretagoiena, Juanjo Guirado, Oihana Jauregi, Peio Jaurregi eta Imanol Fernandez daude elkarteko kideen artean.

gorriko pastak eta txokolatzeko trufak egitera.

Zilegi Eskola

Hernanialdeko AEK-k orain zenbait urte atzera sortutako egitasmoa da Zilegi Eskola. Herritarrek, izan euskaltegiko ikasle edo ez, parte har dezakete bertan. Horrela, euskarara esparru ez formalean erabiltzeko eta praktikatzeko aukera bermatu nahi du euskaltegiak, ikastaroen zein solasaldien bidez.

Asteburuko barnetegiak

Asteburuko barnetegi euskaltegian ikasitakoa praktikatzeko modu atsegina da

AEK euskaltegia

Komunitatea / ANDOAIN

Egunean 24 orduz euskaraz bizitzeko aukera ematen dizugu AEKren barnetegiak: euskaraz gosaldia, bazkaldu eta afaldu; euskara eskolak jaso; eta, ordu libreetan, euskara hutsean bizi.

Ikasurte honetan ere, AEK-k asteburuko barnetegiak antolatu ditu Arantzan eta Iruñean. Maiatzean izango dira. Hona hemen datak eta informazioa:

- B2 eta C1 mailetako ahozko azterketak lantzeko barnetegiak, Arantzan (Nafarroa): 2023ko maiatzak 12-13-14. Prezioa: 177 euro.

- A2.2 eta B1 mailako barnetegiak, Arantzan (Nafarroa): 2023ko maiatzak 19-20-21. Prezioa: 177 euro.
- A2.2 eta B1.1 mailetako ikasleentzako hiri barnetegiak, Iruñean. 2023ko maiatzak 27-28. Prezioa: 101 euro.
- B1.2, B2 eta C1 mailetako ikasleentzako hiri barnetegiak, Iruñean. 2023ko maiatzak 27-28. Prezioa: 101 euro.

Informazioa

eta izen-ematea

- Iruñerriko AEK euskaltegia.
- donibane@aek.eus.
- 948 27 41 60.

MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA

Jornada erdian ebeko lanetarako etasukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kotxea beharrezkoa da. 644 116 122

ALOKAIRU BILA

Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabilta familia bat gara. Gubxi gorabehera 2023 ko urritik 2024 ko martxora arteko

hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaiguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza

beharko genuke. Tel: 639 987 645 / 690 270 468 (Olatz eta Aitor).

PARTE HARTZEKO
disenua@aiurri.eus
619 163 537
943 300 732

Gidabaimena, euskaraz

2022an B1 gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gairiditu zuten herritarren artean, Urnietako Solozabal autoeskolako ikasle izandako Ekain Etxeberriak irabazi du zozketa. 400 euroko saria jasoko du urnietar gazteak. Zozketan urnietar guztiak kontutan hartu dituzte, Urnietako autoeskola batean matrikulatuta egon edo ez egon.



UDALA



Zilegi Eskola, Santa Krutz elkarteak. AEK



martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio
birjina estra, kontserbak, arroza, pasta
eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta
ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



Bete ezazu
despentsa
urte guztirako

